20 zka 1994.eko abuztua

# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



# Gasteiz jaietan

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
**GARMENDIA**
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



**SANTi**
HARATEGIA-URDAITEGIA
PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER AiZPEOLEA**
HARATEGIA



Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



**JOSEBA**
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena*
*kalitaterik onena*





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu
**GASTEIZ**
abuztua

Matxete enparantza, euskal kulturaren gotorlekua
13. orrialdea



Gasteizko kaleetan berriro ere blusa nagusi
24 orrialdea



Inkestak:

eta zuk nola igaroko dituzu jaiak?

Gasteizko jai egitarau osoa

...eta askoz gauza gehiago.

# Agurra



Egunotan, Gasteiz gure hiriarekiko zerikusirik duten gauzokiko guztiokiko eta, hedaduraz, baita arabar kutsua duen ororekiko ere inoizko sentiberatasunik handiena izan ohi dugu. Egunotan, herri honen seme-alabak izateak duen garrantziaz eta, beraz, gasteiztarrok ditugun ezaugarri bereizgarriez ohartu ere egiten gara. Egunotan, bertakoa zein kanpokoari buruzko eztabaida antzuak ere azalera jalgiten dira berriro. Egunotan, zapiaren kolorea, blusen ohiturak, txapelaren erabilera eta gure jaien garapen egokirako beste hainbat gai "garrantzitsu" ekarri ohi dira hizpidera.

Hori guztia dela eta, gasteiztar peto-petoa duzuen Blusen Elkartetik dei zabal bat egin nahi dugu inor ez gatazketan ez alperrikako hika-miketan sar ez dadin, horrek zera erangingo bailuke: hegalaldi herrikoidun kaio bihurtu berri diren putreek behiala aldezten zituzten interes politikoei bazka emateko salda sendotzea.

Bizi ditzagun, bada, gure jai hauek gure herria, Euskal Herria, bat egiten duen adiskidetasunetik abiaturik, eta gure herriko jairik hoberenetariko batzuk ditugula dakigunaren harrotasuna izanez.

Osasuna, Pakea eta Adiskidetasuna gasteiztarroi guztioi.

***Roberto Mtz. de Bujo***
(Blusen Elkarteburua)




# Duela bi urte...

Ez dakit zuek, baina aldizkari hau egiten dugunok ondotxo gogoratzen dugu duela bi urteko abuztua. Orduantxe kaleratu zen GEU GASTEIZ aldizkariaren 0 alea.

Egia esan, ez genekien oso ondo zer lortu nahi genuen...: euskaldunok batu behar gintuen zerbait, elkarren berri eman behar zigun aldizkaritxo bat,... Nork bere txokoa aurkitzeko moduko proiektoa, azken finean.

Gaur, bi urte pasa ondoren 0 ale hartan argiratu genuen paragrafotxo bat gogora ekarri nahi genizueke:

*«Ez gatzaizkizue ohizko predikutan hasiko, askoz ere xumeagoak dira gure asmoak: gasteiztarrak gara (jaiotzez, lanbidez edota bokazioz, berdin dio!) eta euskaraz bizi nahi dugu»*

GEU GASTEIZ

*Bihoazkie gure eskerrik beroenak Udal Agiritegiari eta Roberto Mtz de Bujori beraien laguntza funtsezkoa izan baita abuztuko ale hau kaleratzeko.*

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GEU GASTEIZ
*Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria*
**1691 Postakutxa**
**Tfnoa 26 25 92**
GEU
***elkartearen** babesarekin*
*5.000 Aleko Tirada*
*Lege-Gordailua VI-582/92*
*ISSN: 1133-0988*

***Erredakzio-batzordea:** Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo **Koordinatzailea:** Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrazkiak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo **Publizitatea:** Rakel Peña, Martin Rezola **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Jon Onaindia **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika*

*Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)*

*GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik*



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**GEU GASTEIZ aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.**

IZENA: ____________________

ABIZENAK: ____________________

KALEA: ____________ ZKIA: ______ Pisua: ______

Kode Postala: ____________________

HERRIA: ____________________

## 1691 postakutxa

*idatziguzu*



# BERTSOAK

## Jai hasierako abenturak eta desbenturak

I

Txupinazoaz hasi
behar gure jaia,
Zeledon, Txanpain, Puru usaia
hau da eztanda,
oihu ta kanta,
gaitezen saia,
festa nahia,
giro alaia,
baina ez lasaia (bis)
hau da parranda
latzaren garaia

II

Txanpainaz blai eginda,
zertako negarra?
Giroak kendu dit piura txarra
nere gogoa
indartuz doa
jai grina zaharra
farraz farra
joz adarra
pena bakarra (bis)
Bost egun barru
formaldu beharra

Xabier Rico

# KALEA MINTZO... Gasteizko jaiak





KIKE GARCIA
langabea

**1** Taberna gehiago, txosnak ez baitzaizkit alternatiba egokiak iruditzen.

**2.** Hamaika gauza. Egia esateko, niri ez zaizkit Gasteizko jaiak gustatzen.



## gogora ezazu jaietan ere... ...euskaraz


axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

Ederki
argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**Gure hiriko jaiek berenganatu duten ospea eta entzute ona zalantzan jartzen duenik ez dago. Gasteizera egunotan etorri ohi zaigun kanpotar saldo ugaria dugu horren lekuko. Baina beti zerbait aldatzea edo hobetzea izaten denez, gasteiztar zenbaiti eman diegu jaion osasuna ontzeko iradokizunak plazaratzeko aukera.**

***1. Zer botatzen duzu faltan Gasteizko jaietan?***

***2. Eta soberan?***



SARA SUGAZAGA
ikaslea

**1.**Euskal Herriko musika-taldeen ekitaldiak, batez ere. Aurten ere Udalak ez du hartuko hemengo talderik

**2.** Lagunak esan duen bezala, jaietan ez da sekulan ezer soberan izaten.



GAUDENCIO HERNANDEZ
langilea

**1.**Nire uștez, Gasteizko jaiak primerakoak dira. Hortaz, ez dago ezer aldatu beharrik.

**2.**Lehen esan dudan bezala, ez dago ezer faltan ez eta soberan ere.



ANA MARIA GAMIZ
ikaslea

**1.**Blusa kuadrilen arteko batasunik eza. Uste dut gauza batzuk ez daudela ondo prestaturik.

**2.**Ez dakit, eta gainera, ni egun horietan Gasteiztik kanpo izaten naizenez, ezin dut horretaz gehiegi hitzegin.



OIHANA ZABALETA
ikaslea

**1.**Euskara gehiago kalean entzutea. Udalak, ordea, ez du euskarazko ekitaldi askorik eskeintzen.

**2.**Jaietan ez da sekulan ezer soberan izaten.


MULTISOL, MODAK ZURI BEGIRATZEN DIZUNEAN



BEGIRA IEZAIOZU MODARI MULTISOL BATZUEKIN. DISEINURIK ERAKARGARRIENAK, PREZIORIK ONENEKIN: 1.950 pta.n ETA BEHAR IZANEZ GERO, KRISTALAK GRADUATUKO DIZKIZUGU.
IKUS DEZAZUN! EZ ZALANTZARIK IZAN, MODAK ZURI MULTISOLEN BITARTEZ BEGIRATZEN DIZU.
EEko ARAUDIAREN ARABERA HOMOLOGATURIKO KRISTALAK.

GARANTIA OSOA
1.950 pta.n

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) – GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# animaliak eta jaiak

## Torturaren bidez ondo pasatzea gizakion eskubide demokratikoa al da?



**Gure gizarteak begi bistako kontraesanak ditu bere baitan. Hona hemen bat: bateko, gure gizartean, egunez egun, gero eta teknologi aurrerapen ikusgarriagoak ikus ditzakegu; besteko, animaliekiko tradizio zitalak eta gupidagabeak (irrazionaltasunaren ispilu) aldezten dira.**

EUSKO LEGEBILTZARRAK 1993ko urriaren 29an onetsi zuen Animalien Babeserako Legea. Zioen azalpenak agertzen duenez, batetik, gizarte modernoen ekonomi, gizarte zein kultur aurrerabidea eta bestetik, izadia osatzen duten izaki guztienganako begirunea eskatzen duen gizaki europearraren kontzientziatzea (gero eta handiagoa) uztartu nahi ditu Lege horrek. Euskal gizartea, lege idazki horren arabera, ezin da animalien eskubideak aitortzeko kontzientziatze-mugimendutik at geratu. Sentsibilitate hori zabaltzea da Legearen asmoa, gizarte moderno baten hezkuntza egokiago eta humanitariago baterako oinarriak ezarriz. Abiaburu horiek ikusita, ez dugu dudarik izango legezko tresna horrek ekologia demokratiko batean jatorria duela esateko orduan.

> **“Animalien babeserako Legeak ez dio taiuzko erantzunik eman arazoari”**

Halere, Legearen edukiak ez dio taiuzko erantzunik ematen asmo xorta on horri. Onetsiriko testuak ez du inolaz ere bat egiten hasierako asmoarekin eta, aldi berean, Lege horren beharra piztu zuen izpiritua azpiratzen du. Horrexegatik, hain zuzen ere, ezohizko gogortasunez jaso zuen lege horrek Euskal Herriko animalien defentsarako kolektiboen aldetiko erantzuna.











Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Euskal gizartean, inolako ezpairik gabe, ekologismo demokratikoaren aurkako zenbait ideologi planteamendu erreakzionariok oraindik indarrean dirau. Hori uzten du agerian legea ohizkotasunez bete ez izanak. Beihalako tradizioen izenean, urte osoan zehar euskal herrietan guztietan edozein motatako animaliekin antolatu ohi diren ikuskari izugarriak eta bihozgabeak ditugu horren agerbide garbiak. Ikuspegi antropozentrista, zeinak inguruan duen ororen jaun eta jabe gizakia dela eta horrek, izadiak eta animaliek beren balioa eta duintasuna galdurik, gauzak bailiran bere gogora erabiltzen dituela dioen, temaz aldezteak hankaz gora jartzen du oraintsu aipatu aurrerabiderako planteamendua.

Iazko abenduan, Pipaonen eta Laudion "txarriboda" delakoa ospatu zuten, beren arbasoengandiko tradiziorik zaharrenetariko bat berreskuratu guran. Animaliak sakrifikatzeko legeak agintzen duen titulaziorik ez gaitasunik gabeko hainbat pertsonak hil zuten txerri bat kalean bertan eta nahi adina haurren aurrean. Sarraskia inolako gupidarik gabe eta erarik ankerrenaz burutzen da, animaliak artean konortea galdu ere egin ez duela. Otsailerako, jai horren antolatzeek ikuskizuna findu eta zabaldu nahi dute animalia aurrez izutuz, bere heriotzaren aurrerapen gisa, herriko kaleetan zeharreko persekuzio baten buruan hilko delarik gaixoa; antzeko txerri-hilketei buruzko bideo emanaldi batek emango dio amaiera dibertsioaldiari *(Egin, 1994ko otsailak 2)*. Nekazaritzarako Arabako Foru Diputatuak berak txalotu eta sustatzen du gisa horretako tradizioen itzultzea *(Egin, 1994ko otsailak 11)*.

Udan, Lekeition, urte luzetako ohiturari jarraituz, txalupetan joaten diren hainbat gaztek itsasoaren ur azalean ezarritako soka batetik dindilizka dagoen antzar bati erauzten diote burua. Animalia, gaur egun, ikuskarira hilik eramaten dute, animalien babeserako kolektiboen presioen ondorioz. Aspaldiko ekitaldi horren aurrean, zenbait galdera dugu ihardeskizun, besteak beste, hauexek: zergatik ekarri behar dute antzarra ondoko estatutik beraien helburua animalia sakrifikatzea baino ez bada? Ba al liteke hainbeste gozatzea hildako animalia bati lepoa ebakitzerakoan? Zergatik ez dute trapuzko panpina bat erabiltzen oraingo animaliaren ordez? Horiek horrela, garrantzitsu deritzot arrazionaltasunik gabeko giza jarrera hauek nola sortu eta zabaldu ziren hausnartzeari.



Zekorrak, entzierroak, zezenak, zezen suzkoak dituzue inolako gupidarik gabe ondo pasatzeko jendeak erabili ohi dituen beste ekitaldi-mota batzuk. Tokian tokiko agintaritza, eskuharki, gisa horretako ikuskarien alde agertu ezezik, hainbatetan ere, beren ekonomi sustatzailea izaten da. Aldi berean, pelikulen errodaketan eta abarren kasuetan, animaliei egin dakiekeen minak gezurrezkoa izan behar duela dioen aginduaren tinkotasuna harrigarri zaigu oso.

Horrelako denborapasen legezkotasuna edo legezkotasunik eza alde batera utzirik, animaliak torturatuz, gaizki tratatuz edota akatuz (hainbat kasutan, bizitza aurretiaz kentzen zaien arren) ondo pasatu behar izatea edozein konpromezu moraletatik oso urruti dago. Tradizioak dakarzkigun iharduketa horiek ezin dira justifikatu gizarte demokratiko moderno guztien bizizutabe diren etika, ez gizarte-aurrerabide, ez kultura ikuspuntu ditugula.

**"Animaliak torturatuz ondo pasatu behar izatea edozein konpromezu moraletatik oso urruti dago"**

**Rosa Letamendia Perez de San Román**

*EHUko Bilakaera- eta Hezkuntza-Psikologian Katedraduna eta Arabako Animalia eta Landareen Babeserako Batzordeburua*

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia
Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak
Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Zezenak Gasteizko jaietan

## Eguzki taldea eta "Peña Taurina" delakoa aurrez aurre.



**Gasteizko jaietan gaudela eta, zezenak datozkigu hizpidera. Jaigiro hori ulertzeko era bat baino gehiago denez, guk bi azpimarratu nahi izan ditugu eta alde bateko zein besteko ordezkariekin hitz egin. Horrela, "Peña Taurina" izeneko elkarte zezenzaleko presidentea den Manuel Gomez eta Eguzki talde ekologista izan ditugu solaskide. Horra hor, jarraian, gai honi buruz dituzten erizpideak laburbildurik.**

GASTEIZKO JAIETAKO bost egunetan zezenketak izango dira, abuztuaren 5etik 9ra bitartean. Zezenketok arratsaldeko 6etan hasiko dira; Juan Mora, Jesulín de Ubrique, Finito de Cordoba, Enrique Ponce, Joselito, Espartaco, Ortega Cano eta beste zenbait zezenketarik beren trebeziak erakutsiko dizkiete hara bilduko diren gasteiztarrei. Prezioak: 2.300dik 10.400era bitartekoak.

Peña Taurinako presidentearen ustez, "aurtengo zezenketak inoizko hoberenak izango dira, Gasteizen ospatuko diren arren". Gasteizen aspaldidanik egin dira zezenketak: hasieran, Plaza Berrian eta 1880ko irailaren 2an jarri zuten abian oraingo zezen plaza. Manuel Gomezen ustez, "Gasteizera zezenketaririk hoberenak etorri dira". Hemengo lehen zezenketariak "el Ostión" ezizena zuen. Halere, "Gasteizen ez da zezenketari garrantzitsurik sortu".

Dena den, Manuel Gomezek esan digunaren arabera, zezenketetarako zaletasuna gero eta gehiago zabaltzen ari da". Bere hitzetan, "gero eta jende gehia-

> **"zezenen inguruan sortzen diren baloreak gure kulturarekin kontrajarriak dira"**
>
> Eguzki





GUREA
jatetxea
Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

go joaten da zezen plazara, batez ere gazteak".

Eguzkikoen aburuz, ordea, zezenen inguruan dagoen kultura ez dator bat Euskal Herrikoarekin, "kultura bat besteari nagusiarazi baitzaio". Jaietako zezen-jaiak Udalak antolatzen ditu; uztailaren 25ekoa, ordea, Blusen Elkarteak. Aurten, eusko- holandesa izeneko zezenketa antolatu dute. "Horrelako ekitaldietan ez da indarkeriarik erabiltzen, zezenekin jolastu baino ez baitute egiten".

Gasteizko zezenketek diru etekinik ez omen dute ekartzen: "duela bi urte, esaterako, 8 miloiren bat pz. galdu zen". Eguzkiren arabera, "galerak Foru Aldundiak ordaintzen ditu". Gainera, "zeharka bada ere, blusak beharturik daude zezenketetara joatera". Horri uko egin ezkero, "agur diru-laguntzaren zati bati".

**"zezenketetarako zaletasuna gero eta gehiago zabaltzen ari da"**

Peña taurinoa

Eguzkikoak adierazi digunez, "herrialde guztietan legez kanpokoak dira horrelako ekitaldiak Frantziako hegoaldean izan ezik. Jaiaren zentzuaz, "ez dakit nola goza dezaketen batzuk animalia bat tortura pean ikusten dutenean". Bestalde, kultur arloari dagokionez, "zezenen inguruan sortzen diren baloreak gure kulturarekin kontrajarriak dira". Zezenak esanahi mitologikorik ere badu: "Zezenketaria gizonaren baliokidea den bitartean, zezena emakumearekin identifikatzen da. Toreroak zezena ezpataz hiltzen du; horrek emakumearekiko nolabaiteko dominazioa adierazi nahi du". Beraz, Eguzkiren aburuz, balore patriarkalak matriarkalen gainetik azaleratzen dira zezenketen bidez. "Horrela, gizarte matxista, militarista eta bortitz bat sortuz doa", ondorioztatu du zorrotz talde ekologistak. "Horrelako espektakuluek kultur eraso bat berez dakarkigute, horiek bultzatzen diren heinean, gure kultura zokoraturik geratzen delako" ❑

*Susan Calleja & Itziar Mtz de Santos*

## zezenak...? behiekin!





DEIADAR GASTEIZ FANFARREA
Telefonoa: 23 17 13

MIKO
izozkiak

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Trikitixa Kontrairo:
## Gaua Gasteizera heltzen denean

**Azken urteotan euskal musikan fenomeno bereziren batzu izan ditugu. Batetik, zenbait taldek musika tresna eta estiloen fusio edo nahasketez frogak egin dituzte. Bestetik, beste zenbaitek hilabete gutxiren buruan sekulako arrakasta lortu dute. Baina, bi fenomenoak tartekatzen badira eta eszenatoki baten gainean hamaika musikarik, ehundaka gazte dantzarazten dituztenean, gauza bakar baten aurrean gaude: Trikitixa Kontrairo.**

**Zer da trikitixa Kontrairo?**

Musika talde bat da, batez ere. Era berean, lagun talde bat garela esan daiteke. Hasiera batean, trikitixa talde bat zen, soilik, hau da, bi soinuz eta bi panderoz osatutakoa. Taldeko gainerako partaideak lehendik ezagutzen genituen eta denon artean talde bat osatzea erabaki genuen.

**Non koka zaitezkete egungo euskal musikaren munduan?**

Hasi besterik ez dugu egin. Guk gauza berri bat egin nahi dugu, nahiz eta, agian,



ez dakigun oraindik zer. Jende asko gara eta horrek taldeari influentzia ugari ematen dio. Etorkizunerako, nik uste dut fusio batera joko dugula: gauza berri bat, gurea den gauza bat.

**Non dago zuen muga?**

Ez dakigu. Dena erdi txantxetan hasi zen. Oso azkar etorri zaigu hau guztia, bai kontzertuena, bai maketarena, bai arrakastarena. Proposamen politak ditugu lan egiteko, baina momentuz udan lan egingo dugu eta gerokoak geroko utzi.

**Noizko lehenengo diska?**

Bi disketxetatik deitu digute, baina hurrengo negurako utzi nahi dugu, hurrengo urterako ez bada. Taldea aurrera badoa grabatuko dugu, baina momentuz uda nola ateratzen zaigun ikusi behar dugu.

**Zuen lehenengo urtemuga orain gutxi izan da. Ze balantze egiten duzute?**

Oso azkarra izan da. Gauza asko gertatu da. Iazko uztailaren 2an eman genuen gure lehenengo kontzertu hura Gaztetxean. Txantxa bat izan zen. Hala Bedi irratiko saio baten urtemugan jo genuen eta, handik, sortu zen Gaztetxean jai bat antolatzeko ideia. Nik pentsatu nuen politagoa izango zela hasierako taldeko lau hoiek baino jende gehiago biltzea, ahalik eta jende gehien.; azkenean bederatzi lagun bildu ginen jai hortan musika asmatzeko. Denei gustatu zitzaien eta hor hasi zen ondorengo guztia. Geroztikoa oso azkarra izan da, oraindik aluzinatuta gaude.

*HAUXE DA, beraz, Gasteizko talde berri eta arrakastatsu honen gaurdainokoa. Taldea bederatzi gasteiztar eta beste bi musikarik osatzen dute. Urretxuko Amaiak ahotsak jartzen ditu, Albertok eta Nereak trikitixak, Maribel eta Iurretako Maribelek panderoak, Joxek kitarra, Txubiok baxua, Izaskunek flauta, Alexek alboka, armonika eta faiolea, Rubenek perkusioa eta Dabidek bateria.*

*Hamaika dira, hamaika, igandeetako gure Alabesa bezala, eta ziur abuztuaren 5ean ikusgai eta gozagai izango dituzuela EH Sukarra talde eibartarrarekin batera.*






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Betagarri:
## Udarako proposamen lizuna

Gasteiztarrak, euskaldunak eta rock zaleak dira. Ez dituzu kontzertu handi batean jotzen ikusiko, baina jaietako txoznetan topo egin dezakezu eurekin. Leku txikiak nahiago dituzte, laguntasuna eta herrikoitasuna sortzen dute guneak. Guk Gaztetxearen aldeko bideo klip bat grabatzen ikusi ditugu, eta bere partaide batzurekin eta eurekin jolasean dabilen txakur batekin mintzo izan gara.

**Non dago talde honen sorburua?**

Gure lagun taldetik sortu zen taldea. Partaide batek kitarra bat irabazi zuen telebista saio batean, beste batek bere anaiari berea lapurtu zion, eta kantaria parrokia koru batetik erreskatatu genuen. Horrela jaio zen Betagarri.

**Zer musika mota nahiago duzute egin?**

Burura datorkiguna. Rock and rolla gustatzen zaigu, baina haize tresnak ere erabiltzen ditugu. Noiznahi lokalera edozein etortzen da ideia batekin, eta hori garatzen dugu. Bakoitzak bere ezagupideak barneratzen ditu ideia horietan eta kantak sortzen dira. Kanta gehienak gureak diren arren, bertsio batzu ere egiten ditugu: katalanez, galegoz, italieraz, gazteleraz edota frantsesez.

**Nolakoak izan dira zuen lehenengo hilabete hauek?**

Betagarri sortu baino lehenago txapelketa batean izena eman genuen, baina dirua behar genuelako soilik. Hor ikusi genuen proiekto bat aurrera eramateko aukera zegoela, eta saiatu ginen horretan. "Nave Pirata" izenekoan entsaiatzen dugu, beste zazpi talderekin batera. Talde guzti hauen artean lan polita egiten da eta kontzertuak ere lortzen ditugu. Guk, hamazazpi eman ditugu, esan bezela, hamar bat hilabeteetan.

**Zein izan da zuen momenturik politena?**

Orain arte guztia izan da polita, izerdiaz lortzen duzuna askoz gustorago jaten baita. Baina gure rolloan bizi den anaitasuna argi erakusten duen anekdota bat ere bizi genuen. Izan ere, maketa grabatzen ari ginela, eta Kojon Prietokoekin batera geundenez, beren kitarra erabiltzen ez zuten bitartean guri utzi ziguten, gurea oso eskasa baitzen.

**Eta hemendik aurrera zer?**

Gaur artekoari jarraiki. Euskal Herriko jaietan jo, ondo pasau eta gutxi gastau. Uztailaren 22an maketa aurkeztuko dugu Gaztetxean, eta gero zenbait kontzertu ere izango ditugu.

*GU BEHINTZAT ikusle izango gaituzte aurkezpen ekitaldi hortan, eta guretaz aparte askoz jende gehiago ere, ziur. Izan ere, hasi berria den talde honen musika erraz gaixotzen zaitu, eta hau gutxi ez balitz, beraiekin denborapasa ezinhobea biziko duzu. Guk primeran pasa dugu beraiekin solasean, baita Gaztetxearen bideoklipa grabatzen ere. Porzierto, oraindik ez dakigu zeinena den gurekin jolasten dabilen txakurra, baina taldeko maskota bilakatuko delakoan gaude.*



*Betagarri dira:*
*bateria Miguel Angel*
*baxua eta ahotsa Le Chacal*
*kitarra, ahotsak eta alboka Gontzo*
*kitarra eta ahotsak Aitor*
*ahots nagusia eta panderoa Inaxio*
*tronpeta (m) Unai*
*saxo tenor Saxomendi Gabiña*
*txalaparta Makila Total Tavares*
*tronboia Mikel*






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# KALEA MINTZO... eta jaietan zer?

**D**enok dakigunez, Gasteizko jaiak abuztuaren 4ean hasten dira, arratsaldeko 6etan, hain zuzen. Zenbaiten irudiko, abuztua ez da hilabeterik egokiena, urte osoa Gasteizen egin ondoren jende askok lekutan dagoen oporlekura joatea lehensten duela. Hemen gelditu gero, berriz, non eta zer aukeratu badago. Hona hemen gasteiztar peto-peto batzuek nahiz egunotan gasteiztartu berri zaizkigun zenbaitek gai horretaz duten iritzia.

*Gasteizko jaietan izango al zara?*
*Zer egingo duzu hemen gelditu ezkero?*



AZUZENA RUBIO
ileapaintzailea

**1.** Bai, azken hiru urteotan geratu naiz hemen eta, egia esanda, oso onak iruditu zaizkit jaiok.

**2.** Egun horietan denok egin ohi duguna, alegia, blusen ibilaldira ikusi eta gaujai zein barraketara joan. Goizak, ordea, patxadaz lo egiten emango ditut.



MANUEL BLANCO
jubilatua

**1.** Bai, ia ia urtero geratzen naiz bertan

**2.** Urterokoa: jaietan ondo pasatu. Nire lagunekin leku guztietara joango naiz barraketara izan ezik; hortik ibiltzea zaila egiten zait, bestela hara ere joango nintzateke.



JOSEFINA CALLE
langabea

**1.** Bai, aspaldidanik etortzen naiz urtero hona eta aurten ere ez dut hutsik egingo.

**2.** Alde zaharrean eta txosnetan ibiltzea eta kriston atxurrak harrapatzea; gorputzean zein zainetan barrena denetarik sartzea diru guztia xahutu arte.



LUIS RODRIGO
ikaslea

**1.** Bai, normalean abuztuan hemen izaten naiz

**2.** Ahal izatekotan, lan egingo dut taberna batean. Hori ezinezkoa balitz, hippiak ikusi, alde zaharrean ibili eta abarretan emango nuke denbora



EUGENIO SAEZ
langabea

**1.** Bai, jakina. Ahal dudanetan etortzen naiz hona. Horretaz ez izan zalantzarik.

**2.** Musika-ekitaldiak ikusi. Txosnetara joatea, ordea, dut atseginen. Horren parekorik ez da sortu oraindik.



ITZIAR IGLESIAS
Ikaslea

**1.** Ez dut uste oporretara joango naizelako.

**2.** Hemen geldit000 banintz ohizkoa egingo nuke, hauxe: musika-kontzertuetara eta bertso jaialdietara joan. Ondoren, poteo gogorra beti

Kazetaria: J. J. Kastresana «Gutxi» • Argazkiak: Joseba Unzalu

EDAN • JANTEGIA
Oleaga
Abuztuaren 15a arte irekita
Barra goizeko 7etatik aurrera
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak
ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

JANTZI ETA OPARIAK
SARTU
Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Matxete enparantza euskal kulturaren gotorlekua



Euskarak leku bat aurkitu du azken urteotan Gasteizko jaietan eta Matxete enparantzan euskalzale guztion topagunea bihurtu da. Egunean zehar bost ekitaldi egingo dira bertan; eguerdiko 12,30tik gauerarte trikitilariak, bertsolariak, dantzariak eta abeslariak ikusteko aukera izango dugu. Udalak ekitaldi hauek duten erantzun ona azpimarratzen du eta euskararen aldeko elkarteek, Matxeten egiten dena atsegin dute baina hala ere gehiago eskatzen dute. Nola edo hala gauza bat argi dago: jaietan ere euskarari toki bat egin behar zaio!

esperantoa denona!
ESPERANTO? JES, VOLONTE!
Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)

ditare
UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



> **Urtez urte giro polita eta jende gehiagoren arreta lortu da**

**M**ATXETE ENPARANTZA Gasteizko euskalzale guztion topagune bihurtu da Andra Mari Zuriaren jaietan zehar. Azken urteotan bezala aurten ere ekitaldi bereziak egingo dira bertan. Eguneroko egitaraua eguerdiko 12,30-etan hasi eta gauerarte luzatuko da. Euneko lehen emanaldia Gasteizko Trikitixa eskolako ikasleen esku egongo da. Eskolakoek guztiok nahi baino aukera gutxiago izaten dute urtean zehar trikitixa Gasteizko plazara ateratzeko eta bost egun hauetako aukerari etekina ateratzen saiatuko dira.

Trikitilariek giroa berotu eta gero bertsolarien txanda iritsiko da. Azkenengo bostpasei urteetan bezala bertsolaririk onenen kantuekin gozatzeko aukera izango dugu iragarritako bost saio bikainekin.

Euskal herriko bost dantza talde izango dira arratsaldeko protagonista Matxete enparantzan egun berezi hauetan; baina ez bakarrik baita beraienkin dantzan egitera animatzen diren guztiak. Izan ere, dantza taldeek beren lana eskaini eta gero, gaueko 9etan Dantza Plazan izeneko programa hasiko da Larrain eta txulalaiarekin.

Gaua musika kontzertuetarako une egokia izan ohi da eta Matxeten ere hori da gaueko 11tatik aurrera izango duguna. Euskal kantu tradizionala, pop-a, trikitixa... denetik izango da. Urtean zehar ez ditugu horrelako kontzertu asko entzuteko aukera izaten eta aprobetxatu behar!

## Gero eta jende gehiago

Azaldutako egitarauak hiru milioi pezetako aurrekontua du Udaleko Kultur Saileko ardiradunek azaldu digutenez. Bertako ordezkarial oso pozik daude gasteiztarrek ekitaldi hauei emandako erantzunarekin."Urtez urte giro politagoa eta jende gehiagoren arreta lortu da" adierazi dute.

Duela sei bat urte egin ziren Matxete enparantzako lehengo ekitaldiak eta jendearen abegia ikusita egitarau finko bat egin zen duela lau urte. Egitarau horren ardatza trikitixak, bertsoak, dantzak eta musikak osatzen dute. Hala ere, aukera egonez gero berrikuntzak sartu direla azaldu du jaietako egitaraurako udal arduradunak: "Iaz joten lehiaketa egiten hasi ginen eta oso ondo atera zenez , aurten ere ospatuko da".

Emanaldi guztiak egiteko behar diren dirua eta azpiegiturak Udalak jartzen

> **Matxete enparantza Gasteizko euskaltzale guztion topagune bihurtu da Andra Mari Zuriaren jaietan zehar**

Cerveceria Alemana
SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK
Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

IRUÑA TABERNA
HAMARRETAKOAK
KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

dituen arren, beste elkarteen laguntza izan ohi du lanotan. Gasteizko Bertsolari Eskolaren esku izaten da normalean bertso saio antolatzearen ardura. "Abel Enbeitak bertsolariak proposatu eta saioak gidatzen ditu, kontratazioa gure esku geratzen da" azaldu dute udal ordezkariek.

Izan ere, Gasteizen bertso saiorik antolatzeko Abel baino aproposagoa ba al da? Hala ere, hori ez da beti horrela izan. Andoni Egaña hemen bizi zen bitartean berak antolatzen zituen ekitaldiak. Orain Eskolaren esku geratu da lan hori; iaz guk egin genuen eta aurten ere" azaldu digu bertsolariak. Jaietako bestso saioak goi mailakoak direla azpimarratzen du Abelek: "Iaz bertsolari onenentsuenak ekarri genituen ea gainera, ikusleen aldetik ere urterik oparoena izan zen". Iazko marka hausteko ilusioa dute hala ere, "bai, bertsozaletasuna pizten ari dela nabaritzen baita; Euskal Herrian gertatzen den fenomeno hau berau Gasteizen gertatzen ari da"

**"Erakundeek egiten duten ahalegin guztiek euskara alde zaharrera mugatzen dute eta guk euskara Gasteiz osoan ikusi nahi dugu"**



IÑAKI JAUREGIALTZO-ren KERAMIKA LANAK



CORRERIA, 62
Tfnoa: 20 09 04
GASTEIZ

ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

> **"Euskararen arloan erakundeei beti gehiago eskatu behar zaie"**

## Gehiago eskatu behar

Gasteizko euskalzaleek ondo baloratzen dute oro har Matxeteko egitaraua baina kritikak ere aditzen dira hortik zehar. Bagareko lagunen ustez, "oso ideia ona da baina, azkenean, erakundeek egiten dituzten ahalegin guztiek euskara alde zaharrera mugatzen dute eta guk euskara Gasteiz osoan ikusi nahi dugu".

Matxeten egindako ekitaldiez aparte, euskarazko kontzertu bakarra dago egitarau ofizialean , E.H Sukarra eta Trikitixa Kontrairo Taldeak Foru enparantzan egingo dutena, hain zuzen. "Ez dugu ekitaldi guztiak euskaraz izaterik eskatzen baina egitarauak orekatuagoa beharko luke".

Horretaz gain eta euskararen egoera ikusita, "erakundeei beti gehiago eskatu behar zaiela uste dugu" adierazi digu talde euskalzalearen ordezkari batek.

Egitarau ofizialeko euskara emanaldiak Matxete enparantzara mugatuko badira ere, Bagarek euskara bultzatzeko jai bat antolatzeko asmoa du: "izan ere, oraindik ez daukagu ezer erabakita baina garaiz iragarriko dugu" esan digute bukatzeko" ❒

**Leire Lopez de Aberasturi**



# eta... ...txosnetan ?

Jai hauetan ezin dugu ahaztu hainbat talde urtero biltzen dela Txosnen inguruan jai alternatiboak antolatu nahaian. Aurten, Udalarekin zenbait tirabira izan ondoren, Luis Heinz kalean egongo dira Txosnak. Aldizkaria prestatzen ari ginenean oraindik ere egitaraua zehaztu gabe bazuten ere, zenbait ekitaldi aurreratu digute, beti ere, aldaketak egon daitezkeela adieraziz.

**Jaialdiak:**

Def con dos
Bizkar Hezurra
Sorotan Bele
Urtz
Exkixu
eta Gasteizko hainbat talde

**Antzerkia**
**Hilaren 5an**

Ikurriñaren lehen mendeurrena dela eta...
kalejira




iRUSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ



ELKARTASUN DENDA

Kutxileria 15 Gasteiz
Tfnoa: 25 51 41




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZ Jaietan

# zorionak denoi !





## Zeledon,

## ondo pasa eta hor konpon !

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Abuztuak 4 osteguna

# ANDRA MARI ZURIAREN OHOREZKO JAIAK

## Arratsaldez

**6etan**

**ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN:**
94ko jaiei hasiera emango dien suziriaren jaurtiketa eta Celedonen jaitsiera.

**6:30etan**

**SANTA BARBARA PLAZAN:**
Musika-animazioa, Biasteriko bandaren eskutik.
**AMARIKA PLAZAN:**
Musika-animazioa, Lantziegoko bandaren eskutik.
**ERDIALDEAN:**
Musika-animazioa, gaitajole bandekin.

**6:45etan**

**UDALETXEAN, AGIRRE LEHENDAKARIA KALEAN, POSTA KALEAN ETA ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN BARRENA:**
Udal Komitiba, erraldoi eta buruhandiek lagundurik. Lore eskaintza Andra Mari Zuriaren aurrean, Bezperak, San Migel parrokian, eta Salbea.

**7etan**

**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Dantzaldia, Tiburon taldearen eskutik.

**7:30etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Indarra dantza taldea.

**8:30etan**

**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Santiago Moncadaren "Siempre en Otoño" antzezlana Irene Gutierrez Caba, Julia Gutierrez Caba eta Amparo Baro aktoresen eskutik.

**9etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Dantza Plazan: Larrain dantza eta Txulalai.



## Gauez

**10etan**

**ERDIALDEKO KALEETAN:**
Farolen prozesioa.

**11:30etan**

**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Gaujaia, Tiburon taldearekin.
**MATXETE PLAZAN:**
Kantaldia Jojo eta Ramontxorekin.
**ARKAKO PLAZAN:**
Gaujaia, Metropolis taldearekin.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Santiago Moncadaren "Siempre en Otoño" antzezlana Irene Gutierrez Caba, Julia Gutierrez Caba eta Amparo Baro aktoresen eskutik.
**OLAGIBEL KALEAN:**
Zezensuzkoa eta, ondoren, kale-animazioa, Biasteri eta Lantziego banden eta Ostadar txarangaren eskutik.

**12etan**

**FORUEN PLAZAN:**
Los de Rio taldearen kontzertua.

**12:30etan**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Acuarium show orkestra.

**11etatik goizaldeko 3etara**

Musika kalean, Ostadar eta Deiadar txarangekin eta Lantziego eta Biasteriko bandekin hiriaren erdialdean.
Anima zaitez!



◀ **Gaueko 11,30etan Matxete plazan:**

**Jojo eta Ramontxo**




**LA UNION**
taberna
*jai zoriontsuak!*
Plaza Berria, 4
GASTEIZ

IZARRA TABERNA JATETXEA
BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

UDABERRIA elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**Gaueko 11,30etan Matxete plazan:**

**Niko Etxart eta Hapa Hapa**

## Goizez

**7etan**

**ERTAROKO HIRIGUNEAN ETA ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN:**
Egunsentiko Errosarioa eta Prozesioa.

**9etan**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Dianak, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Diputazio Txistulari Banda, Biasteriko Banda, Lantziegoko banda eta gaitajole banden eskutik. Ondoren, Udal Musika Bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Posta, Loma Jenerala, San Antonio, Foruak, Alava Jenerala, Dato, Florida eta San Antonio. Biasteriko bandak S. Cristobal eta Adurtza auzunetan ihardungo du. Lantziegoko bandak Arana eta Santa Luzia auzoetan.

**10etan**

**MENDIZORROTZAKO APARKALEKUAN:**
Andra Mari Zuria 39. saria - Gasteizko Txirrindulari Elkartea.
**FORUEN PLAZAN**
Arabako boloen lehiaketa. Erakustaldia.

**10:30etan**

**SAN MIGEL PARROKIAN:**
Meza, bertan izango da Gasteizko udalbatzarra.

**11etatik ordu bietara**

**FORUEN PLAZAN:**
Herri kirolen erakustaldia: aizkolariak, trontzalariak, harri jasotzaileak eta soskor apustua.

## Eguerdian

**12etan**

Erraldoi eta buruhandien konpartsa Andra Mari Zuriaren plazan, Zapaterian, Arriagako atean, Ahate-iturrin, Jesusen Zerbitzarien kalean, Diputazio kalean eta Enparantza Berrian barrena ibiliko da.
Gargantua Diputazio plazan izango da.
**ARKAKO PLAZAN:**
Pailazoak: Chetti anaiak.

**12:30etan**

**FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN:**
Udal Musika Bandaren kontzertua.
**JUAN DE AYALAKO PLAZAN:**
Ertzaintzaren Musika Bandaren kontzertua.
**ERDIALDEKO KALEETAN:**
Kalejira Gasteizko Trikitixa Eskolaren eskutik.

**Ordu batean**

**AMARIKA PLAZAN:**
Txontxongiloak, Phanta Rhei taldearen eskutik.
**MATXETE PLAZAN:**
Gasteizko Trikitixa Eskola.

**1:30etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Mikel Mendizabal.

## Arratsaldez

**4:45etan**

Enparantza Berritik Zezen Plazara: blusen ibilaldia.

**5:30etan**

**ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN:**
Haurrentzako animazioa Hortzmuga taldearekin.

**6etan**

**VICENTE GOIKOETXEA KALEAN:**
Nafarroako jotak, Los Pamplonicas taldearekin.
**ZEZEN PLAZAN**
Abonuko lehenengo zezenketa: Sevillako Guadaira abeletxeko zezenak Manzanares, Juan Mora eta Finito de Córdoba zezenketarientzat.
**ABENDAÑOKO ZIRKUITUAN:**
Txirrindulari Eskolen bilera (Aranako Kluba).

**6etatik 8etara**

**DIPUTAZIO PLAZAN:**
Gargantua.

**6:30etan**

**FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN:**
Haurrentzako dantza, Traperos del Rio taldearekin.
**MATXETE PLAZAN:**
Biasteriko banda.
**POSTETXE PLAZAN:**
Lantziegoko banda.

**7etan**

**AMARIKA PLAZAN:**
Jazza, Ricardo Urrutia Cuarteto-aren eskutik.
**PRADOKO PARKEAN:**
Dantzaldia, Jaitxo taldearekin.

**7:30etan**

**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Dantzaldia, Inguma taldea.
**MATXETE PLAZA:**
Sestaoko Salleko dantza taldea.

**8:30etan**

Zezen Plazatik enparantza berrira: Blusen itzulera.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Santiago Moncadaren "Siempre en Otoño" antzezlana Irene Gutierrez Caba, Julia Gutierrez Caba eta Amparo Baro aktoresen eskutik.

**9etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Dantza Plazan: Larrain Dantza eta Txulalai.

## Gauez

**11etan**

**ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN:**
Aurreneko su artifizialak, Pirofantasía pirotekniaren eskutik.

**11:30etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Niko Etxart eta Hapa Hapa: kantaldia.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Santiago Moncadaren "Siempre en Otoño" antzezlana Irene Gutierrez Caba, Julia Gutierrez Caba eta Amparo Baro aktoresen eskutik.
**OLAGIBEL KALEAN:**
Zezensuzkoa eta musika-animazioa, Deiadar txarangarekin.
**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Gaujaia, Inguma taldearekin.
**ARKAKO PLAZAN:**
Gaujaia, Orquesta Show Belea Band-en eskutik.

**12etan**

**FORUEN PLAZAN:**
A la fuga eta Manolo Tenaren konzertua.

**12:30etan**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Picolisima Orquesta-ren ekitaldia.

**11etatik goizaldeko 3etara**

Musika kalean, Ostadar eta Deiadar txarangekin eta Blusen Elkarteko fanfarre zein

zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Berrikoia

ANBOTO
TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA
Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA
ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Abuztuak 6 larunbata

## GOIZEZ

**10ETAN**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Dianak, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Diputazio Txistulari Banda, Biasteriko Banda, Lantziegoko banda eta gaitajole banden eskutik. Ondoren, Udal Musika Bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Posta, Diputazioa, Samaniego, Ricardo Buesa, Antso Jakituna, Lovaina, Magdalena, Becerro Bengoa eta San Prudentzio. Biasteriko bandak Abetxuko auzoan ihardungo du. Lantziegoko bandak Desemparados auzoan.
**ENPARANTZA BERRIAN:**
Lehenengo BEREZIAK lehiaketa gastronomikoa, blusa kuadrilei zuzendua.

**11ETAN**

**ZEZEN PLAZAN:**
Zekorrak.

**11ETATIK ORDU BIETARA**

**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuri saria: harrijasotzaileak eta aizkolari jubenilak. Trontzalari Eskolen erakustaldia.
**FORUEN PLAZAN (frontoia):**
Andra Mari Zuri saria: eskupilota. Jubenilak eta nagusiak.

## EGUERDIAN

**12ETAN**

Erraldoi eta buruhandien konpartsa Desemparados auzoan. Gargantua Postetxe plazan izango da.
**ARKAKO PLAZAN:**
Pailazoak: Donosti anaiak.

**12:30ETAN**

**FLORIDA PARKEKO KIOSKOAN:**
Udal Musika Bandaren kontzertua.
**JUAN DE AYALAKO PLAZAN:**
Ertzaintzaren Musika Bandaren kontzertua.
**ERDIALDEKO KALEETAN:**
Kalejira Gasteizko Trikitixa Eskolaren eskutik.
Ordu batean
**AMARIKA PLAZAN:**
Txontxongiloak, Pan y Chocolate taldearekin.
**MATXETE PLAZAN:**
Trikitixa: Gasteizko Trikitixa Eskola.
**CANCILLER AYALA HOTELEAN:**
Antzerkiari buruzko solasaldia Quique Camoirasen antzerki taldearekin.
**GASTEIZ HOTELEAN:**
Zezenketa-sariak emateko ekitaldia Gasteiztarrak kuadrilaren eskutik.

**1:30ETAN**

**MATXETE PLAZAN:**
Bertsolariak: Jon Lopategi, Xabier Amuriza eta Jon Enbeita.

## ARRATSALDEZ

**4:45ETAN**

Enparantza Berritik Zezen Plazara: blusen ibilaldia.

**5:30ETAN**

**ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN:**
Haurrentzako animazioa Auskalo taldearekin.
**BETI JAI FRONTOIAN:**
Andra Mari Zuri saria: Juan Luis Ayo zenaren (Arabako Pilota Federakuntza) ohorezko puntarako xistera.

**6ETAN**

**VICENTE GOIKOETXEA KALEAN**
Nafarroako jotak, Voces Navarras taldearekin.
**ZEZEN PLAZAN**
Abonuko bigarren zezenketa: Salamancako Andrés Ramos Plazaren abeletxeko zezenak Ortega Cano, Juan Mora eta Julio Aparicio zezenketarientzat.

**6ETATIK 8ETARA**

**DIPUTAZIO PLAZAN:**
Gargantuak askaria hartzeko tenorea.

**6:30ETAN**

**FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN:**
Haurrentzako dantza, Azkona taldearekin.
**SEFARAZ PLAZAN (JUDIMENDI):**
Lantziegoko banda.
**SANTA BARBARA PLAZAN:**
Biasteriko banda.

**7ETAN**

**AMARIKA PLAZAN:**
Jazza, Daniel Perez hirukotearen eskutik.
**PRADOKO PARKEAN:**
Dantzaldia, Simba orkestrarekin.

**7:30ETAN**

**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Dantzaldia, Anker taldearen eskutik.
**MATXETE PLAZA:**
Joten lehiaketa.

**8:30ETAN**

**ZEZEN PLAZATIK ENPARANTZA BERRIRA:**
Blusen itzulera.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Julio Mathiasen "Una noche de abrigo" antzezlana Quique Camoirasen antzerki taldearen eskutik.

**9ETAN**

**MATXETE PLAZAN:**
Dantza Plazan: Larrain Dantza eta Txulalai.

## GAUEZ

**11ETAN**

**ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN:**
Bigarren su artifizialak, Astondoa piroteknariaren eskutik.

**11:30ETAN**

**MATXETE PLAZAN:**
Asier Gozategi: kantaldia.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Julio Mathiasen "Una noche de abrigo" antzezlana Quique Camoirasen antzerki taldea
**OLAGIBEL KALEAN:**
Zezensuzkoa eta musika-animazioa, Ostadar txarangarekin.
**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Gaujaia, Anker taldearekin.

**12ETAN**

**FORUEN PLAZAN:**
Crines eta Los Ronaldos taldeen konzertua.

**12:30ETAN**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Pop-Tops-Light Orquesta-ren ekitaldia.

**12:30ETATIK GOIZALDEKO 3ETARA**

**ARKAKO PLAZAN:**
Gaujaia, Joselu Anaiak taldearekin.

**11ETATIK GOIZALDEKO 3ETARA**

Musika kalean, Ostadar eta Deiadar txarangekin eta Blusen Elkarteko fanfarre eta txarangekin honako ibilbide honetan zehar: San Frantzisko aldapa, Posta, Andra Mari Zuriaren plaza, Mateo Moraza, Agirre Lehendakaria, San Prudentzio, San Antonio, Foruak, Independentzia eta Dato.



## BERTSO saioak

**Abuztuak 5 ostirala**
Andoni Egaña
Sebastian Lizaso
Mikel Garmendia

**Abuztuak 6 larunbata**
Jon Lopategi
Xabier Amuriza
Jon Enbeita

**Abuztuak 8 astelehena**
Bittor Elizagoien
Manolo Arozena
Estitxu Arozena
Amaia Teiletxea



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Abuztuak 7 igandea

**Gaueko 12,30etan Arkako plazan:**
**Joselu Anaiak**

**Gaueko 12etan Foruen plazan:**
**Trikitixa kontrairo taldea eta EH Sukarra**

## Goizez

### 10etan

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Dianak, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Diputazio Txistulari Banda, Arabako Errioxako txaranga eta gaitajole banden eskutik. Ondoren, Udal Musika Bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Foruak, Nueva Fuera, San Vicente de Paul, San Prudentzio erresidentzia, Frantzia, Bakea, Ortiz de Zarate eta San Antonio. Arabako Errioxako txarangak San Martin auzoan ihardungo du.
**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuria txapelketa: Arabako boloak. Erakustaldia.

### 11etan

**ZEZEN PLAZAN:**
Zekorrak.

### 11etatik ordu bietara

**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuri saria: soskor apustu. Aizkolarien Eskolen eta harrijasotzaileen erakustaldia.
**FORUEN PLAZAN (frontoia):**
Andra Mari Zuri saria: eskupilota. Jubenilak eta nagusiak.

### 11:30etan

**SAN MIGEL PARROKIAN:**
Blusa txikien meza eta lore eskaintza.

## Eguerdian

### 12etan

Erraldoi eta buruhandien konpartsa San Antonio, Florida, Foruak, Posta eta Enparantza Berrian barrena.
Gargantua Andra Mari Zuriaren plazan izango da.
**ARKAKO PLAZAN:**
Pailazoak: Txitxilipurdi.

### 12:15etan

**ANDRA MARI ZURIAREN IRUDIAREN AURREAN:**
Ohorezko aurreskua eskeiniko zaio.

### 12:30etan

**FLORIDA PARKEKO KIOSKOAN:**
Udal Musika Bandaren kontzertua.
**JUAN DE AYALAKO PLAZAN:**
Araiako Bandaren kontzertua.
**ERDIALDEKO KALEETAN:**
Kalejira trikitixa eta albokaren doinuaz, Udal Folkore Ikastegiaren eskutik.

### Ordu batean

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Suziriaren jaurtiketa eta Celedon Txikiren jeitsiera.
**MATXETE PLAZAN:**
Udal Folklore Ikastegiko trikitilariak eta albokariak.

### 1:30etan

**MATXETE PLAZAN:**
Haurrentzako animazioa Hika antzerki taldearekin.
**AMARIKA PLAZAN:**
Txontxongiloak, Kuskus taldearekin.
**ENPARANTZA BERRIA, ANDRA MARI ZURIA, SAN ANTONIO, SAN PRUDENTZIO ETA DATO:**
Blusa txikien kalejira.

## Arratsaldez

### 4:45etan

Enparantza Berritik Zezen Plazara: blusen ibilaldia.

### 6etan

**ZEZEN PLAZAN**
Abonuko hirugarren zezenketa: Sevillako Javier Molinaren abeletxeko zezenak Luis Fco. Esplá, Vicente Ruiz "El Soro", Jose Ignacio Ramos eta Pablo Hermoso de Mendoza (zezen bat errejoiekin) zezenketarientzat.
**ANDRA MARI ZURIAREN PLAZATIK MENDIZABALARA:**
Zirkura joatea, blusa txikientzat, Arabako Errioxako txarangak lagundurik.
**VICENTE GOIKOETXEA KALEAN:**
Nafarroako jotak Brotes Navarros taldearen eskutik.

### 6etatik 8etara

**ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN:**
Gargantuak askaria hartzeko tenorea.

### 6:30etan

**FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN:**
Haurrentzako dantza, Traperos del Rio taldearekin.

### 7etan

**AMARIKA PLAZAN:**
Jazza, Itxaso Gonzalez laukotearen eskutik.
**PRADOKO PARKEAN:**
Dantzaldia, Simba orkestrarekin.

### 7:30etan

**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Dantzaldia, Iratxo taldearen eskutik.
MATXETE PLAZA:
Errenteriko Ereintza Dantza taldea.

### 8:30etan

**ZEZEN PLAZATIK ENPARANTZA BERRIRA:**
Blusen itzulera.

**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Julio Mathiasen "Una noche de abrigo" antzezlana Quique Camoirasen antzerki taldearen eskutik.

### 9etan

**MATXETE PLAZAN**
Dantza Plazan: Larrain dantza eta Txulalai.

## Gauez

### 11etan

**ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN:**
Hirugarren su artifizialak, A. Caballer S. A. pirotekniaren eskutik.
**MATXETE PLAZAN:**
Tapia eta Leturia: kantaldia.

### 11:30etan

**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Julio Mathiasen "Una noche de abrigo" antzezlana Quique Camoirasen antzerki taldearen eskutik.
**OLAGIBEL KALEAN:**
Zezensuzkoa eta musika-animazioa, Arabako Errioxako txarangarekin.
**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Gaujaia, Iratxo taldearekin.
**ARKAKO PLAZAN:**
Gaujaia, Drakkar taldearekin.

### 12etan

**FORUEN PLAZAN:**
Trikitixa Kontrairo eta E.H. Sukarra taldeen konzertua.

### 12:30etan

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Alcatraz Orquesta-ren ekitaldia.

### 11etatik goizaldeko 3etara

Ostadar eta Deiadar txarangak ibilbide honetan zehar: San Frantzisko, Posta, Andra Mari Zuriaren plaza, Mateo Moraza, Agirre Lehendakaria, San Prudentzio, San Antonio, Foruak.

**Abuztuak 9 asteartea**

**Zigor Enbeita**

**Oihane Perea**

**Rikardo Gnz de Durana**

**Dani Kastaño**







Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Abuztuak 8 astelehena



## Goizez

**10etan**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Dianak, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Diputazio Txistulari Banda, Arabako Errioxako txaranga eta gaitajole banden eskutik. Ondoren, Udal Musika Bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Herreria, Arriagako Atea, Jesusen Zerbitzariak, Diputazioa, Loma Jenerala eta San Antonio.
**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuria txapelketa: Arabako boloak. Erakustaldia.

**11etan**

**ZEZEN PLAZAN:**
Zekorrak.

**11etatik ordu bietara**

**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuri saria (Arabako txapelketarako baliorik duena): aizkolariak.
**FORUEN PLAZAN (frontoia):**
Andra Mari Zuri saria: eskupilota. Jubenilak eta nagusiak.

## Eguerdian

**12etan**

Erraldoi eta buruhandien konpartsa Kutxilleria, San Prudentzio egoitza, Frantzia eta Errege Atea kaleetan barrena. Gargantua Desamparados plazan izango da.

**ARKAKO PLAZAN:**
Pailazoak: Txikilanda.

**12:30etan**

**FLORIDA PARKEKO KIOSKOAN:**
Udal Musika Bandaren kontzertua.
**JUAN DE AYALAKO PLAZAN:**
San Asensioko bandaren kontzertua.
**ERDIALDEKO KALEETAN:**
Kalejira Gasteizko Trikitixa Eskolaren eskutik.
Ordu batean
**AMARIKA PLAZAN:**
Txontxongiloak, Teatro Kaos taldearekin.
**MATXETE PLAZAN:**
Trikitixa: Gasteizko Trikitixa Eskola.
**CANCILLER AYALA HOTELEAN:**
Antzerkiari buruzko solasaldia Pedro Osinagaren antzerki taldearekin.

**1:30etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Bertsolariak: Bittor Elizagoien, Manolo Arozena, Estitxu Arozena eta Amaia Teiletxea.

## Arratsaldez

**4:45etan**

Enparantza Berritik Zezen Plazara: blusen ibilaldia.

**5:30etan**

Haurrentzako animazioa Goloka taldearekin.

**6etan**

**ZEZEN PLAZAN**
Abonuko laugarren zezenketa: Céceresko La Cardenilla abeletxeko zezenak Joselito, Enrique Ponce eta Jesulín de Ubrique zezenketarientzat.
**VICENTE GOIKOETXEA KALEAN:**
Jotak Vega ahizpen eskutik.

**6etatik 8etara**

**DESENPARADOS PLAZAN:**
Gargantuak askaria hartzeko tenorea.

**6:30etan**

**FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN:**
Haurrentzako dantza, Traperos del Rio taldearekin.

**7etan**

**AMARIKA PLAZAN:**
Jazza, Andrzej Olejniczak Trio taldearen eskutik.
**PRADOKO PARKEAN:**
Dantzaldia, Simba orkestrarekin.

**7:30etan**

**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Dantzaldia, Iruña Band taldearen eskutik.
**MATXETE PLAZA:**
Folklore taldea: Udal Folklore Ikastegia.

**8:30etan**

**ZEZEN PLAZATIK ENPARANTZA BERRIRA:**
Blusen itzulera.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Francis Veber-en "¡Jo, que cena!" antzezlana Pedro Osinagaren antzerki taldearen eskutik.

**9etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Dantza Plazan: Larrain dantza eta Txulalai.

## Gauez

**11etan**

**ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN:**
Laugarren su artifizialak, Valecea S. A. pirotekniaren eskutik.

**11:30etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Txanbela: kantaldia.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Francis Veber-en "¡Jo, que cena!" antzezlana Pedro Osinagaren antzerki taldearen eskutik.
**OLAGIBEL KALEAN:**
Zezensuzkoa eta musika-animazioa, Ostadar txarangarekin.
**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Gaujaia, Iruña Band taldearekin.
**ARKAKO PLAZAN:**
Gaujaia, Skala 2.000 orkestrarekin.

**12etan**

**FORUEN PLAZAN:**
Contrabanda eta Los Secretos taldeen konzertua.

**12:30etan**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Santiago y Central de Música orkestraren ekitaldia.

**11etatik goizaldeko 3etara**

Musika kalean, Ostadar eta Deiadar txarangekin eta Blusen Elkarteko fanfarre eta txarangekin honako ibilbide honetan zehar: San Frantzisko aldapa, Posta, Andra Mari Zuriaren plaza, Mateo Moraza, Agirre Lehendakaria, San Prudentzio, San Antonio, Foruak, Independentzia eta Dato.



◀ **Gaueko 11,30etan Matxete plazan:**
**Txanbela**

GARNICA
FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK
Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Abuztuak 9 asteartea



## Goizez

**10etan**

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Dianak, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Diputazio Txistulari Banda, Arabako Errioxako txaranga eta gaitajole banden eskutik. Ondoren, Udal Musika Bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Posta, Olagibel, Bakea, Jesus Guridi, Ortiz de Zarate, Florida eta San Antonio.
Arabako Errioxako txarangak Zaramaga eta El Pilar auzoetan ihardungo du.
**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuria txapelketa: Arabako boloak. Erakustaldia.

**11etan**

**ZEZEN PLAZAN:**
Zekorrak.

**11etatik ordu bietara**

**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuri saria: idi-probak (pisu librea).
**FORUEN PLAZAN (frontoia):**
Andra Mari Zuri saria: eskupilota. Jubenilak eta nagusiak.

**Gaueko 9etan Foruen plazan:**
**Kedeke eta Demalafe**

## Eguerdian

**12etan**

Erraldoi eta buruhandien konpartsa Andra Mari Zuriaren plazan, Enparantza Berria, Dato, Alava Jenerala, Foruak eta Posta kaleetan barrena.
Gargantua Olagibel kalean (Leizaola Lehendakaria Plazan) izango da.
**ARKAKO PLAZAN:**
Pailazoak: Los Diana.

**12:30etan**

**FLORIDA PARKEKO KIOSKOAN:**
Udal Musika Bandaren kontzertua.
**JUAN DE AYALAKO PLAZAN:**
Eltziegoko bandaren kontzertua.
**ERDIALDEKO KALEETAN:**
Kalejira Gasteizko Trikitixa Eskolaren eskutik.

**Ordu batean**

**AMARIKA PLAZAN:**
Txontxongiloak, Teatro Kaos taldearekin.
**MATXETE PLAZAN:**
Trikitixa: Gasteizko Trikitixa Eskola.

**1:30etan**

**MATXETE PLAZAN:**
Bertsolariak: Zigor Enbeita, Oihane Perea, Rikardo Gonzalez de Durana eta Dani Kastaño.

## Arratsaldez

**4:45etan**

Enparantza Berritik Zezen Plazara: blusen ibilaldia.

**5:30etan**

Haurrentzako animazioa Goloka taldearekin.

**6etan**

**ZEZEN PLAZAN**
Abonuko bostgarren zezenketa: Salamancako Manuel San Romás de Valdésen abeletxeko zezenak Espartaco, Cesar Rincón eta Joselito zezenketarientzat.
**VICENTE GOIKOETXEA KALEAN:**
Nafarroako jotak Nagore ahizpen eskutik.

**6etatik 8etara**

**OLAGIBEL KALEAN (LEIZAOLA LEHENDAKARIA PLAZA):**
Gargantuak askaria hartzeko tenorea.

**6:30etan**

**FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN:**
Haurrentzako dantza, Azkona taldearekin.
**POSTETXE PLAZAN:**
Arabako Errioxako txaranga.

**7etan**

**AMARIKA PLAZAN:**
Jazza, Avant Garde hirukotearen eskutik.
**PRADOKO PARKEAN:**
Dantzaldia, Simba orkestrarekin.

**7:30etan**

**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Dantzaldia, Huracán taldearen eskutik.
**MATXETE PLAZA:**
Donostiako Kresala Dantza taldea.

**8:30etan**

**ZEZEN PLAZATIK ENPARANTZA BERRIRA:**
Blusen itzulera.
**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Francis Veber-en "¡Jo, que cena!" antzezlana Pedro Osinagaren antzerki taldearen eskutik.

**9etan**

**FORUEN PLAZAN:**
Kedeke eta Demalafe taldeen kontzertua.
**MATXETE PLAZAN:**
Dantza Plazan: Larrain dantza eta Txulalai.

## Gauez

**11etan**

**OLAGIBEL KALEAN:**
Zezensuzkoa.
**JUAN DE AYALA PLAZAN:**
Gaujaia, Huracán taldearekin.
**ARKAKO PLAZAN:**
Gaujaia, Koxkor taldearekin.
**FORUEN PLAZAN:**
Internacional Marabu taldea.

**11:30etan**

**PRINCIPAL ANTZOKIAN:**
Francis Veber-en "¡Jo, que cena!" antzezlana Pedro Osinagaren antzerki taldearen eskutik.
**MATXETE PLAZAN:**
Maixa eta Itziar.

**12:30etan**

Internacional Marabú oskestra.
Goizaldeko ordu batean
**ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN:**
Jaien bukaera, Celedon agurtu eta igo egingo da. Azken traka Valecea S. A. pirotekniaren eskutik.


GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Gasteizko kaleetan berriro ere blusa nagusi!

## Blusen historiaren gainetiko begiratu azkarra



Gasteizko jaien atarian gaude, nork bere armairua arakatu eta blusa bilatzeko garaian, alegia. Gizarte honetan dena da eztabaidagarria, baina begi bistakoa da blusak Gasteizko jaien arima eta bihotza direla. Blusa soinean eramatea gurea da, gasteiztarrona, laguartean ibiltzea gurea den bezalaxe. Baditugu, beraz, bi osagaiak blusak kalera irtetzeko. Horrela, errez-erreza, helburua, ondo pasatzea, baina noiz sortu ziren blusak, nondik datoz?... GEU GASTEIZek blusen inguruan gehiago jakin nahi izan du, eta horretarako argi dago Jose Maria Sedano baino irakasle hoberik ez dagoela











Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**JOSE MARIA SEDANORI** berehala antzematen zaio kazetaria izana dela. Ia ez digu denborarik eman galderak burutzeko, bera gure helburuaren jakinaren gainean zegoelako. Guk lehenengo galdera egin bezain laister, ederto laburtu digu blusen hasieratik gaurdainoko ibilia. "Lehenengo blusa taldea mende honetako 20ko hamarkadan sortu zen". Bere izena honako hau zen: "Abdel Krim y Cia". Dena den, Gasteizen betidanik izan ditugu blusak. Esaterako, 1968. urteari buruzko kronikek honela zioten: "Txapel gorriz jantzitako gazteak, musika lagun, dantza egin zuten zezen plazan". Garai hartan zezen plaza "Resbaladero" deritzaion lekuan zegoen, eta aurreneko blusa horiek bertako seigarren harmaila zuten dantzaleku".

> **"Blusak ere urteekin aldatu egin dira"**

## Zezen plazaren gorabeherak

Garai hartan blusak eta zezenak elkartzen ziren. Gaur egun, ordea, ez da gauza bera gertatzen, baina utz diezaiogun Sedanori jarraitzen: "Egun ezagutzen dugun zezen plaza berria 1880ean eraiki zuten. Gerora, gudak suntsitu zuen bertan Francoren jarraitzaile presoen topalekua baitzegoen. 40. hamarkadako aurreneko urteetan blusak indartsu irten ziren kalera berriz, "Los Globeros", "Los de siempre", "No les miren que se caen"... 35 bat blusa talde zeuden, oraingoak baino askoz txikiagoak; urte osoko (eta ez soilik jai garaiko) lagun taldeak ziren, 20 bat lagun kuadrila bakoitzean.

# Jose Maria Sedano, blusaz jantzitako kazetaria



**JOSE MARIA SEDANO** San Antonio kaleko seigarren zenbakian jaio zen 1928ko ekainaren 26ko egunsentian. Ez dira gutxi gasteiztar honek aurrera eraman dituen egitasmoak. Askok eta askok ahotsa dela medio (Gasteiz irratian 37 urtez egin zuen lan) ezagutuko duzue; beste batzuek, berriz, berak idatzitako artikuluak gogoratuko dituzue. Baina Jose Mari kazetaria baino zerbait gehiago da gasteiztarrontzat. Blusa eguna, egun horretako zekorketa, Zeledonen jaitsiera..., saltsa guzti horietan izan da Jose Mari Sedano, beti gure hiriko ohituren aitzindaria, bultzatzailea, zabaltzailea...

Nork ez du gogoratzen Jose Marik Gasteiz Irratian zuzentzen zuen "Euskal Jaia" saioa? Euskal musika ardatza zuen irratsaio horrek 28 urtez iraun zuen airean, marka guztiak hautsiz. Frankismoa, transizioa, Suarez, Felipe Gonzalezen aurreneko urteak... atzean geratu dira. Halere, "Euskal Jaiak" tinko barneratu zituen urte horietako gorabeherak.

"La Gaceta del Norte", "El Pensamiento Alavés", "Norte Express" eta Deia egunkariek ezagutu zuten Sedanoren lana. Horra hor datu jakingarri bat, Jose Marik 400 bat artikulu idatzi ditu Foronda aireportuaren gainean.

Alabaina, urteak ez dira alperrik igarotzen, eta egunkari horietariko gehienak desagertu diren bezalaxe, gizakiok ere lana utzi beharrean izaten gara inoiz.

Dagoeneko Sedano erretiraturik dago. Birritan "Urrezko Zeledon" izendatu duten blusa ohi honek zeozer idazten du oraindik, baina atsedena hartzeko ordua heldu zaiola deritzo berak. Urte luzez hain gogor lan egin ondoren ederki irabazita du barealdia. Mila esker Jose Mari!

bar · restaurante · albéniz

ALBENIZ JATETXEAK
jai zoriontsuak opa dizkizue guztioi!

Portal del Rey, 9
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**"40. hamarkako aurreneko urteetan 35 bat blusa talde zegoen Gasteizen"**

Urte luzez blusak ez ziren Gasteizko kaleetara atera, baina 1955ean gogotsu berplazaratu ziren". Hori aditu eta gero, gure galdera derrigorrezkoa zen, urte haietan blusarik ez egotearen arrazoia itaundu diogu Jose Mariri; bere erantzuna: "Arrazoi politikoak izan ziren. Zezen plazan polizia batek pistola atera zuen eta guardia zibil batekin arazo larriak sortu ziren... Badakizu, garai haietan..."

## Blusak ia urtero kalean

Geroztik blusek, bi urtez izan ezik, urtero-urtero alaitu dituzte Andra Mari Zuriaren ohorezko jaiak. Zoritxarreko urte horietariko bat 1976a izan zen. Zaramagan bost langile hil ziren orduko polizia eta sistemaren eskutik.

Urteak aurrera doaz. Hala ere, ohiturek beren horretan diraute. Blusak ere urteekin aldatu dira, esaterako, batek baino gehiagok blusa baino pailazoa dirudi.

Badakizue, Gasteizez eta gasteiztarrez zerbait gehiago jakin nahi izan ezkero, Sedanorekin hitz egitea baino bide zuzenagorik ez duzue. Berak gu ederki hartu gintuen eta zuei ere abegi txukunik egingo dizue. Ez izan zalantzarik. Gure elkarrizketak luze jo zuen, eta han Gasteizko arima den Plaza Berrian jarraitu genuen berba egiten zezenez, pilotaz, zapi gorriaz, laukidunaz...

Ismael Diaz de Mendibil





*Goiko argazkian (1958. urtekoa) blusa talde baten «ibilgailua» ikus dezakezue. Beheko aldean blusa talde bat 1934an Enparantza berrian.*

**ARGAZKIAK: Gasteizko Udal Artxibategia.**

Quetzal
¡ai zoriontsuak!
HegoAmerikako jantzirik ederrenak
PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea,7
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ

Haurgailuak
Opariak
Rioja 22 • Tfnoa: 27 47 51
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# DENBORAPASA



ZEHARRETARA
1. Joan den hilabetea. Kanpo. 2. bizkaieraz omen. Agurtzeko. Konts. 3. Unibertsitate eta Zientzietarako Euskal Institutua. Euskal. 4. Onartu. Nitrogenoa. 5. Lehena. Aditz bukaera. Nitrogenoa. (Ald.) Tiro-hots. 6. Ahoskatu. Sartzeko. 7. Eme ez. Nola atzizki. Iodoa. (Ald.) Atzizki. 8. Justu. Emakume izena. 9. Joan den urtean. Bizkaieraz zaina. 10. Nafarroako herriska. Hirutik bat.

GOITIK BEHERA
1. Udako Euskal Unibertsitatea. Lehena. Agur. 2. Perretxiko. Zoroak. 3. Tarragonako autoetan. Euskal Irrati Telebista. Itzulpen Zerbitzu Ofiziala. 4. Ahituak. 5. Kasik. Oxigenoa. Errepikatua Kilkerrak egiten du. Hidrogenoa. 6. Emakume izena. Ezik. 7. Desafio egiteko. Haran. 8. Sevilla ondoko herri bat. Nire. 9. Lehena. Ergatibo marka. Ospa, alde. 10. Musika-tresna. Lehena.

## LETRA ERORI

GOIKO lerroetan, gauden garaiari ondo zetorkion esaera bat zegoen. Zoritxarrez beheko lerroetara erori (zutabez aldatu gabe) eta desordenatu egin da. Lagunduko al diguzu berregiten?



## ERANTZUNAK

Esaera: Dezagun denbora iragan, gaitezen joka gaitezen dantza eta dosta!



**AMA ETA ALABA** txikia etxean daude, eta alabak amari:
- Diska bat jan dut eta ez zait ezer gertatu... eta ez zait ezer gertatu... eta ez zait ezer gertatu.......

**ZERTAN DUTE** elkarren antza gobernuak eta hileta batek?
- Lauk kutxa eramaten dute eta besteak atzean joaten dira negarrez.

**BI MORROIK** topo egiten dute elkarrekin oihanaren bihotzean; batek telefono kabina bat darama eta besteak ingude (yunque) bat. Harrituta geratzen dira biak eta batak besteari:
- Zertarako daramazu telefono kabina?
- Ai, motel! Lehoirik agertzen bada, kabinan sartu eta horrela salbatuko dut ene bizitza. Eta zuk zertarako daramazu ingudea?
- Ene ba, motel! Lehoirik agertu ezkero, ingudea lurrera bota eta horrela azkarrago egingo dut alde.

**NEKAZARI BAT** soro-lanetan ari da eta bitartean, bere etxean, haurdun zuen emaztea. Halako batean, lagun bat joan zaio bila esanez:
- Zure emaztea ospitalean dago, semea izan du baina arazo bat gertatu da; oxigeno ipini behar izan diote.
- Oxigeno, hau bai pena! Nik Juanito ipini nahi nion.

*Goiko txisteak **Errioxako Ttiki-Ttaka** aldizkarian argitaratu dira, ekaineko alean, hain zuzen.*

HEGOALDE euskaltegia
Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005
GASTEIZ

UDA IKASTAROAK
Uztailetik Irailera
Gasteizen eta Barnetegiak
Saran eta Bakaikuan



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# JAIETAN...
## *jan eta edan*



**abuztua oporren hilabetea denez, garairik aproposena omen dugu sakelari astindu txiki bat emanez, sabelari beste hainbesteko pozaldi bat atxekitzeko. Gasteizko jaiak tartean izateak ere pentsamolde hori sendotu baino ez du egiten. Jarraian agertuko dizkizuegun bi platerak eta postre goxoa oso egokiak dira egun berezi hauetan sukaldean sartu eta bertatik irteteko presarik izan ez dezanarentzat azokan txakur txiki bat baino zenbait gehixeago utzi eta gero. On egin eta ondo pasa jaietan!**

# Rosbif-a Barrengorriekin




### Osagaiak:

- Urtume (urtebeteko ahumea)-solomoa: kilo 1.
- Tipula: hiruzpalau 3 handi.
- Olio hotza: 2 goilarakada.
- Gurina: bola txiki bat.
- Saldа edo ura: burdintzalikada txiki bat.
- Jerez lehorra: 2 goilarakada.
- Gatza.
- Piperrauts beltz xehatua.

### Nola egin:

Labea piztu bero mailarik altuenean, haragia bertan sartu baino ordu laurden lehenago. Solomoa estekatu itxura apaina izan dezan. Gatza gainetik bota eta labean sartu azpil baten barruan eta tipula txirrindolen gainean ezarririk. Bi goilarakada olio hotz gainetik bota. Hiru ordu laurdenez eduki bertan. Azpila ateratzeko unea iristear dagoela, eltze bat berotu eta bertan solomoa paratu bere ur guztia isur dezan. Gurin apur bat gaineratu eta piperrauts beltza hautseztatu. Eduki horrela eltzea 20 minutuz, beroari eutsiz (sutan dagoen beste eltze baten gainean, esaterako).

Ondoren, solomoa eltzetik atera, sokak kendu eta xerretan ebaki. Lehengo eltzera bota salda edo ura eta jereza; zurezko goilara batez karrakatu lehen egosiaren urarekin nahasteko. Hori guztia egosi, iragaztontzitik pasa eta lehen haragiak eltzean isuri duen urarekin bat egin. Ondoren, dena batera berotu eta saltsontzi batez mahairatu.
Jarraian barrengorriak atonduko ditugu.

## Barrengorriak

### Osagaiak:

- Barrengorriak: 500 gr.
- Zukua: limoi batena.
- Baratxuri aleak: 2.
- Olio hotza: 2 goilarakada.
- Perrexil xehatua.
- Gatza.

### Nola egin:

Barrengorriak ondo garbitu beren oinaren alde gogorra ebaki eta gero. Gero, ur guztia isuri ondoren, gatza bota gainetik. Olioa berotu; baratxuri aleak zatikatu eta frijitu. Kolore beltza har dezatenean sutatik kendu berakatzok. Horren ordez, barrengorriak eta limoi zukua ezarri dena elkarrekin irabiatuz. Ardo txuria gaineratu. Horrela eduki 10-15 minutuz. Bero mahairatu, solomoaren osagarri gisa, perrexil xehatua hautseztatu eta gero.

deportivos AZOKA kirolgaiak
Zure kirol- oinetakoak
Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33
Fax: 22 07 19

Arbenz liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Itsaski arraultzopila



## Osagaiak:

- Arraultzeak: 8.
- Ganbak: 1/4 kg.
- Otarrainskak: 1/4 kg.
- Olio frijitu: bi goilarakada.
- Tipula xehatu: bi goilarakada.
- Koñaka: goilaraka bat.
- Perrexila: 2 adar.
- Limoiak: 2.
- Gatza.

## Nola egin:

Lau otarrainska eder gorde geroko. Artean, enparaukoak zatikatu azala kendu ondoren. Olioa berotzen jarri. Tipula xehatua su bigunetan ezarri eta ontzi berera ganbak eta otarrainskak bota. Egina denean, koñaka gaineratu; dena su bigunetan berotuz gero, geroko gordeko dugu.
Perrexil adar bat xehatu. Arraultzak binaka irabiatu eta arraultzopil bakoitzean perrexil xehatu apur bat bota. Zartagina berotu eta olio pittin bat zabaldu bere gainalde osoan. Lehenik, arraultze irabiatua eta perrexila botako ditugu eta biak bat egiten hasten direnean, olio bigunetan berotutako xehakinen laurdena ere sartu bertan. Arraultzopila tolestu bi pusketatan. Horrela eduki erabat egina izan arte. Gauza bera egin gainerako hiru arraultzopilak osatzeko. Bitartean, parrila bat jarri berotzen eta olio tanta batzuk gainetik bota. Lehen gorde ditugun hiru otarrainska azala kendu gabeak bertan paratu; gatza eta limoia hautseztatu bi aldeetatik. Arraultzopilak egin eta gero, otarrainskak ezarri gainetik. Platera apaintzeko, adarreko perrexil apur bat edota limoi txirrindola zenbait erabil daitezke.

# Laranja Izozkia



## Osagaiak:

- Laranjak: 6, azal gogorra dutenak.
- Azukrea: 200 gr.
- Edalontzi txiki bat Cointreau.
- Zukua: limoi erdi batena.
- Ura: litro erdi bat.

**Merengerako:**

- Arraultzeak: 2 zuringo.
- Azukre ehotua: 2 goilarakada.

## Nola egin:

Laranjei goialdea ebaki eta beren edukia kendu kontu handiz. Limoia eta countreau-arekin nahasi laranjen mamia, eta iragaztontzitik pasa. Sendotasun handirik gabeko urazukrea (almibarra) sortu azukrea eta ura elkarrekin egosiz. Hori egina izan dadinean, lehengo likido nahastuarekin bat egin. Nahasketaren emaitza izozgailu batean ezarri ordubetez, gutxi gorabehera. Izozkia mamitutakoan, laranjen barrualdea bete horretaz baliatuz. Laranja beteak izozgailuan sartu. Mahairatu baino lehenago, merengea sortu zuringoak "elur puntuan" irabiatuz, oso sendo. Azukre ehotua hautseztatu irabiaketa taigabean merengea behar bezala harrotu arte. Labeko grila piztu. Azpil batean ezarri laranjak. Beraietariko bakoitzaren gainean merenge apur bat paratu. Azpila labean sartu eta bertan eduki merengeak urre kolorea har dezan arte, ez luzeago.





Bacalao Giraldo

•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»



Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



# Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

| DEPARTAMENTUA | ZERBITZUA | HELBIDEA | TELEF. | FAXA |
|---|---|---|---|---|
| ZERBITZU OROKORRAK | ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA | Dato, 11 | 16 11 88 | 16 15 93 |
| LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA | HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK) | Dato, 11 | 16 13 01 | 16 15 93 |
| KULTURA | | Machete plaza, z/g | 16 12 75 | 16 12 76 |
| O.K.U.S./DEMSAC | ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC) | Done Bikendi aldapa, z/g | 16 12 40 | 16 12 51 |
| HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA | EUSKARA | Espainia plaza, z/g | 16 15 22 | 13 09 65 |
| GIZARTE ONGIZATEA | ADMINISTRAZIO-ATALA | Espainia plaza, z/g | 16 13 60 | 16 13 63 |
| INFORMATIKA | | Vera-Fajardo margolaria, 5 | 16 14 13 | 16 16 00 |
| HEZKUNTZA | ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA | José P. Ullibarri, z/g | 28 16 35 | |
| | EL PILARREKO HAUR ESKOLA | Caracas, 6 | 22 94 99 | |
| | F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA | F.J. Landaburu, z/g | 28 35 45 | |
| | HAURTZARO HAUR ESKOLA | Santa Maria kantoia, z/g | 14 34 33 | |
| | IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA | Astronomoak, z/g | 28 44 95 | |
| | OLARIZUKO HAUR ESKOLA | Dantzari plaza, 6 | 27 28 95 | |
| | TXIMELETA HAUR ESKOLA | Ricardo Sacristán, z/g | 22 46 34 | |
| | SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA | Federico Baraibar, 17 | 28 82 25 | |
| | TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA | Gasteiz hiribidea, 61 | 22 95 49 | |
| | ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA | Nafarroako erreg., 16-B | 28 94 49 | |

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZ KO UDALA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa